

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Alkate-lehendakariaren 2020ko ekainaren 1eko 1053 Dekretuaren laburpena. Dekretu horren bidez, COVID-19 ezohiko gizarte-laguntzen deialdia onartu zen**

BDNS(Identif.): 508721

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Laudioko Udal honen web atarian ([www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Deialdi honen bidez arautzen dira COVID-19 ohiz kanpoko gizarte laguntzen deialdia, salbuespen eta behin-behineko baliabide gisa pentsatuta, lehia irekiaren edota norgehiagoka-sistemaren bidez eta, betiere, 2020ko abenduaren 31ra arte. Deialdi horren bidez, osasun-krisiaren ondorioz babesgabetasun-egoeran dauden eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edota bizi-irauteko Sostengurako Laguntzen Udal Programako laguntza jaso ezin duten pertsonen arreta eman nahi zaie, harik eta deialdiak indarrean, bere horretan, jarraitzen duen bitartean.

#### **Bigarrena. Xedea**

Gure udalerrian 2020. urtean COVID-19 aparteko gizarte-laguntzak ematea.

#### **Hirugarrena. Deialdia**

Alkate-udalburuaren 1053 Dekretu bidez onartuak, 2020ko ekainaren 1ean.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdi honetarako zuzkidura 150.000,00 eurokoa izango da, 2020 urteko aurrekontuan eta 0700 2311 48023 partidaren kargutan.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eta 2020ko abenduaren 31ra arte.

Laudio, 2020ko ekainaren 1a

*Alkate-udalburua*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*